



IX. KIROL ARGAZKIEN LEHIAKETA ELGOIBAR 2014

ANTOLATZAILEA: ELGOIBARKO UDALA (Gazteria Saila eta Udal Kirol Patronatua), Ongarri argazkilari elkartearekin lankidetzan.

PARTEHARTZAILEAK: Argazki lehiaketa honetan nahi duten zaletu guztiek har dezakete parte, bai profesionalek, bai amateurrek.

GAIA: Kirolaren arlo guztiak.

MODALITATEA, AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA:

Paperean aurkezten diren argazkien euskarria 30x40 zentimetrokoa izango da ezinbestean, eta kartulina finen eginikoa. Euskarri horren barruko argazki-paperaren neurria 24x30 zentimetrokoa izango da.

Paperezko argazkiak aurkezteko epea: UZTAILAK 18

LANAK: Partaide bakoitzak, gehienez ere, 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu. Lanek originalak beharko dute izan. Ezin dira aurkeztu beste lehiaketa batean saritutako lanak.

PAPEREZKO LANEN IDENTIFIKAZIOA: Argazki bakoitzaren atzean izenburua edo leloa bakarrik jarriko da. Argazki bakoitzarekin batera, kartazal bat aurkeztuko da argazkiaren izenburu edo lelo bera duena. Kartazal horren barruan lehiakidearen datuak jasoko dira; izen-abizenak, NANA, adina, helbide osoa, emaila, telefono zenbakia eta kontu korronteko zenbakia (20 digituak, IBAN-arekin). Datu hauek nahitaezkoak izango dira saria jaso ahal izateko. Antolatzaileek ez dute erantzukizunik izango, sarituek, sariak eman ostean, haiekin harremanetan jartzeko behar diren datuak ematen ez badituzte. Hortaz, argazkilari sariduna antolatzaileekin harremanetan jartzen ez bada, antolatzaileek bidezkoa den erabakia hartuko dute.

HELBIDEA:

Olaizaga kiroldegia

32 posta kutxatila

San Roke kalea, 20870 elgoibar

MAILAK ETA SARIAK

1) HERRITARRENTZAKO SARIA: Elgoibarren bizi direnek aurkeztutako argazkirik onena sarituko da.

Saria: 200 €

2) NERABEENTZKO SARIA: 13-17 urte bitarteko nerabeak, Elgoibarkoak edo eta kanpokoak.

1 Saria: 150 €

2 Saria: 100 €



3) GAZTEENTZAKO SARIA: 18- 35 urte bitarteko gazteak, Elgoibarkoak edo eta kanpokoak.

- 1 Saria: 300 €
- 2 Saria: 200 €

4) SARI OROKORRA (35 urtetik gorakoentzat): elgoibartarrak, nahiz kanpokoak.

- 1 Saria: 300 €
- 2 Saria: 200 €

Ohar garrantzitsua: Saridunek saria jasotzera etorri beharko dute eta ezinezkoa bazaie ordezkari bategi jaso beharko du. Sari banaketan ez bata ez bestea egongo ez balitz, saria baliogabetu egingo da.

EPAIMAHAIA: Epaimahaia uztailaren 22an bilduko da, eta honela osatuta egongo da: Elgoibarko Udaleko lau ordezkari eta Ongarri argazkilari elkarteko ordezkari bat. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

SARI BANAKETA: Abuztuaren 22an, arratsaldeko 7:30ean, Kultur Etxean.

ERAKUSKETA: Epaimahaiak aukeratzen dituen argazkiak erakutsiko dira jendaurrean, abuztuaren 22tik 31ra bitartean, Kultur Etxean.

Orduetgia: 18:30 – 20:30

LANAK JASOTZEKO EPEA: Argazki sarituak antolatzaileen esku geratuko dira, eta horiek izango dira argazkiak argitaratzeko eskubidea izango dutenak, beti ere, egilearen izena aipatuta. Saritu gabeko lanak jasotzeko epea irailaren 10etik 28ra izango da. Lanak Olaizaga kiroldegian jaso ahal izango dira. Epe horren barruan jasotzen ez diren lanak antolatzaileen esku geratuko dira.

ARGAZKIAK GALTZEA EDO LAPURTZEA: Antolatzaileek hitz ematen dute argazkiak ondo zainduko dituztela, baina ez da beraien ardura izango bidean edo eta erakusketa egiten den bitartean galtzen edo hondatzen badira, ezta lapurtzen badituzte ere. Egileek aseguruaren edo lanen balioaren ardura izango dute.

ONARRIAK ONARTZEA: Lehiaketa honetan parte hartzeko, oinarri hauek guztiak onartu beharko dira.